


Euskadiko fisioterapia-unitate eta -zentroen erabiltzaileen artean SARS-CoV-2 bidezko infekzio aktiboaren detekzio goiztiarrerako protokoloa



1 SARRERA

Kontrol-mekanismo eraginkorrak ezartzeko beharretik sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoan, maiatzean, **Covid-19aren zaintza aktiboko eta detekzio goiztiarreko sarea**. Sare hori eskura dauden diagnosi probetan oinarritzen da. Proba horiek, edozein laguntza-mailatan, arrisku handieneko kolektiboen eta kutsatuta daudela susmatzen den edo baieztatzen den pertsonen artean egiten dira, bai eta haien kontaktu estuen artean ere. Zaintza Epidemiologikoko Sarea honako hauek osatzen dute ofizialki: Osasun Publikoko talde teknikoak eta kasuak kudeatzeko erizaintza arloko profesionalak. Horiek estu aritzen dira lankidetzan Lehen Mailako Arretako Sendagileen Sarearekin eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin.


Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak eta haren kolektibo profesional osoak osasun-agintaritzekiko erantzukizunaren eta lankidetzaren adierazpen ugari eskaini dituzte pandemia hasi zen unetik. Honako hauek dira gure profil arduratsuaren eta espiritu kolaboratzailearen adibide eta erakusgarrietako batzuk: funtsezko lan klinikoa zainketa intentsiboetako eta erreanimazio-lanetako unitateetan, "eskuragarritasun funtzionala" deritzonaren onarpen apal eta arduratsua, klinika pribatuetan eskura dauden baliabide partikularrak (NBEak, lokalak...) dohaintzan ematea eta masiboki eskuragarri jartzea, une kritikoenetan premiazko kasuei arreta emango zitzaiela bermatzea, erakunde honek abiarazitako telelaguntza fisioterapeutikoko sarean parte-hartze altruista izatea edo oraindik indarrean dauden laguntza fisioterapeutikoko protokoloak zorrotz betetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisioterapeutikoa arrakastaz suspertu eta normalizatu da. Horretarako, osasun komunitarioa babesteko eta sustatzeko neurri eraginkorrak hartu dira. Egoera horrek, zalantzarik gabe osasun-eragile eta protagonista eztaba daezin bihurtu behar gaitu pandemiaren kudeaketa globalean. Kolektibo gisa, Covid-19aren Zaintza Aktiboko Sarearekin lankidetzan aritzeko ardura hartzen dugu, osasun-eragile eta informazio-igorle garen neurrian, SARS-CoV-2 bidezko infekzio aktiboaren detekzio goiztiarra egiteko.

Euskal lurralde osoko ia lauhun fisioterapia-unitate eta -zentroak eta egunero milaka herritarrei eskaintzen zaien arreta oso baliabide eraginkor eta efizienteak dira, kasuak garaiz antzemateko eta zaintza-talde ofizialek gauzatzen duten zaintza- eta trazabilitate-prozesua errazteko.

Beraz, bat egiten dugu, era batera edo bestera, kutsatuta egon daitezkeen pertsonekin harreman profesionala duten kolektibo guztien ahalegin sinergikoarekin, kasu berriak garaiz detektatzeko, neurri egokiak berehala ezartzeko eta herritarren artean hedapena garaiz eteten laguntzeko.

Hemen aurkezten den protokoloaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko fisioterapia-kliniken esparruan SARS-CoV-2 bidezko infekzio aktiboa garaiz detektatzen lagun dezaketen irizpideak ezartzea.



2 JUSTIFIKAZIOA ETA XEDEAK

Pandemiaren bilakaera bihurria, epidemiologiari dagokionez, zalantzarik gabe elementu motibatzailea da. Horren ondorioz, *Covid-19aren Zaintza Aktiboko Sarearen* lana osatu, aberastu eta erraztuko duten estrategiak eta protokoloak antolatzen ditugu, diagnostiko- eta jarraipen-lanean eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko.


Osasun-arloko profesional gisa dugun konpromiso egiaztatuak, gure asistentziako esku-hartzeen hurbiltasunak eta milaka pazienterekin egunero dugun harreman zuzenak kolektibo hau ezinbesteko tresna bihurtzen dute Covid-19aren kasu posibleak goiz detektatzeko eta kontrolatzeko prozesu konplexuan.

Hitzorduak hitzartu aurretik, telefonoaren bidez egindako bereizketa interes bereziko elementua da, laguntza-taldearekiko babes-neurri gisa ez ezik, kontrol-mekanismo ofizialen osagarri eta paraleloa den tresna gisa ere; izan ere, dozenaka kasu susmagarri bideratu ahal izan dira, eta horietako asko gerora berretsi egin dira. Era berean, bizikidetzaren historiaren erregistroak (gure esku-hartzeen testuinguruan) kasuen jarraipena egiten duten ekipoei kontaktu estuen kontrol- eta trazabilitate-lanak errazten ari zaizkie.

Kutsatzeen hazkundeari eta sintomarik gabeko kasuen eta kasu arinen (detektatzeko zailak direnak) ehuneko handiari erreparatuta, oso interesgarria iruditzen zaigu gure lankidetzaren erraztea, estamentu ofizialekin koordinatuta, pandemiaren hedapen komunitarioa arintzeko.

Xedeak

1. Euskadiko fisioterapiako kliniken eremuan SARS-CoV-2 bidezko infekzio aktiboa goiz detektatzen lagunduko duten irizpideak ezartzea.
2. Euskadiko Zaintza Aktiboko Sareko talde tekniko ofizialekin lankidetzaren aktiboan aritzea, informazio arin, egiazko eta goiztiararen transmisore gisa.
3. Gure asistentzia-jardueraren mekanismo protokolizatuak ezartzea, kasuen jarraipena egiten duten ekipoei kontaktu estuen trazabilitatea errazteko.
4. Infekzio gehiago egon ez daitezkeen beharrezkoak diren kontrol-neurriak garaiz ezartzea.



3 XEDE-BIZTANLERIA


COVID-19ak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren zeinuak eta sintomak dituztela telematikoki jakinarazten duten pazienteak.

Tratamendu edo jarraipena egiteko fisioterapia-unitate edo -klinika batera joan eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pazienteak

4 KASU SUSMAGARRIAK IDENTIFIKATZEA

Fisioterapeutak telefono bidezko bereizketaren edukia ebaluatuko du, eta hitzordua eskatzen duten pazienteek izan ditzaketen susmo-zantzuak edo -sintomak zehaztu beharko ditu. Era berean, behin pazientea kontsultara bertaratzen denean, anamnesia errepikatu beharko du egon daitezkeen zeinu hauek bilatzeko:


- **Sukarra** – 37.5 °C tik gorako galtzarbeko tenperatura (in situ hartutakoa edo pazienteak aipatutakoa)
- **Arnasteko zailtasuna**
- **Buruko mina**
- **Sudur-kongestiorik gabeko eta errinorrearik gabeko anosmia**
- **Ageusia edo hipogeusia**
- **Astenia**
- **Artralgiak eta mialgiak**
- **Eztarriko mina**
- **Eztul lehorra**
- **Beherakoa** – gutxienez 5 libratze bigun 24 orduan
- **Goragaleak**
- **Konjuntibitisa**
- **Bularreko mina**, aire falta sentsaziorik gabe




Irizpide horietako bat edo batzuk identifikatuz gero (telefono bidezko bereizketan edo klinikan egindako anamnesi zuzenean), adieraziko da **kasu susmagarritzat** joko den, esku-hartze fisioterapeutikoa eten eta baliogabetu egingo den eta osasun-zentroan mediku-balorazioa egiteko berehalako hitzordua eskatu beharko den.

Egoera horren aurrean, pertsonak ulertu behar du eskakizun hori betetzea garrantzitsua dela, bai eta diagnostiko positiboa nahitaez jakinaraztea ere. Hori horrela, kontu handiz ibili behar du bere kontaktu estuekin, kutsatuta dagoela modu frogagarrian identifikatu edo baztertu arte.

Halaber, fisioterapia-zentroa prest egongo da zaintza- eta kontrol-taldeek eskatutako informazioa emateko, eta erregistratutako informazioa eman eta jarraipen-prozesuan lagunduko du.



**Lehen mailako arretako medikuarenera
bideratzea, balorazioa egiteko**



ERANSKINA. Definizioak

- **Kasu susmagarria:** bat-bateko eta edozein larritasun-mailatako arnas infekzio akutu baten koadro klinikoa duen edozein pertsona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire faltaren sentrazioa duena. Beste sintoma batzuk ere (hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoa, toraxeko mina edo zefaleak) SARS-CoV-2 bidezko infekzioaren sintomatizat har daitezke, irizpide klinikoaren arabera.
- **Litekeena den kasua:** arnas infekzio akutu larria duen pertsona, COVID-19arekin bateragarria den koadro kliniko eta erradiologikoa izan eta PCRan emaitza negatiboa eman duena, edo PCR ez-erabakigarria duten kasu susmagarriak.
- **Infekzioa aktiboa duen baieztatutako kasua:**
 - Kasu susmagarriaren irizpide klinikoa betetzen duen eta PCR positiboa eman duen pertsona.
 - Kasu susmagarriaren irizpide klinikoa betetzen duen pertsona, eta PCR negatiboa eta errendimendu handiko serologian (ez test azkarren bidez) IgMren emaitza positiboa eman dituen.
 - PCR positiboa eta IgG negatiboa dituen edo horiek egin gabea dituen pertsona asintomatikoa.
- **Infekzioa gairitu duen baieztatutako kasua:**
 - IgG serologia positiboa duen pertsona asintomatikoa, PCRaren emaitza edozein izanda ere (PCR positiboa, PCR negatiboa edo egin gabea).
- **Baztertutako kasua:** kasu susmagarria, PCR negatiboa eta IGM negatiboa dituen (proba hori egin bada), eta susmo kliniko handirik ez badago.

(Iturria: COVID-19AREN DETEKZIO GOIZTIARRERAKO, ZAINTZARAKO
ETA KONTROLERAKO ESTRATEGIA dokumentua. 2020ko irailaren 10ean eguneratua).

